



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Prensa zerbitzua

DURANGALDEKO LANBIDE IKASTETXEAK BERE 25. URTEURRENA OSPATZEN DU

Ikastetxea 1986. urtean jarri zen martxan, ikasketak alde batera utzi zituzten gazteei laneratzeko aukera eskaintzeko helburuarekin.

Denbora horretan zehar, 16 urtetik 18ra bitarteko 1.500 gazte igeltserotza, etxez etxeko gizarte laguntza, arotzeria, elektrizitatea, eskaiola, iturgintza, baratze zaintza, lorezaintza, ostalaritza edota pintura bezalako espezialitateetan prestatu dira.

Nabarmentzekoa da prestakuntza aldiak bukatu direnean kontratazioetan % 85erainoko emaitzak izan direla garai batzutan.

Ikasturte honetan Durangaldeko Lanbide Ikastetxeak bere 25. urteurrenera ailegatu da. Hori dela eta, ospakizun bat burutu da gaur goizean ikastetxearen instalazioetan. Ekitaldian Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren presidentea, Oskar Zarrabeitia, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Etengabeko Ikaskuntzako zuzendaria, José Luis Elorza, eta ikastetxe, Udal eta lanbidearekin zerikusia duten erakundeen ordezkariak eta Amankomunazgoaren presidente ohiak egon dira, besteak beste.

Ekitaldian zehar, gonbidatuek ikastetxeak izan duen jarduerari buruz hitz egin dute, eta eskualdean izan duen eragina goraiatu dute. “25 urteko bizitza-aldia izan da, behar zutenei laguntzeko balio izan duena, hezkuntzako programa hau duinagoa izateko laguntza eman duena eta administrazio publikoaren lana duinago bihurtu duena”, azaldu du Oskar Zarrabeitiak.

JATORRIA ETA EBOLUZIOA

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak 1986. urtean Durangaldeko Lanbide Ikastetxea jarri zuen abian, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin batera. Garai horretan, programa berritzailea zen eta, Europako Gizarte Funtsaren laguntzarekin, ikasketak utzi zuten gazteak laneratzea zen helburu nagusia.

Dagoeneko 25 izan dira Ikastetxean hezitako promozioak, eta denbora horretan zehar, 16 urtetik 18ra bitarteko Durangaldeko 1.500 gaztek honako espezialitateetakoren bat ikasi dute: igeltserotza, etxez etxeko gizarte laguntza, zur-arotzeria, arotzeria metalikoa, elektrizitatea, eskaiola, iturgintza, baratzezaintza, lorezaintza, ostalaritza eta pintura. Parte hartzaileen artean gehienak mutilak izan dira (%85), eta nabarmentzekoa da azkeneko urteetan beste herrialdeetatik ikasle gehiago etorri direla, gaur egun ikasleen % 30a osatuz.

Ikasleek jasotzen duten prestakuntza bi kurtsotan zehar ematen da (2.100 ordu), eta hori bukatutakoan jasotako prestakuntza-maila 'Prestakuntzako 1. Mailari' dagokiona da, edo bestela adierazita, langile/laguntzaile-enpleguari dagokion maila. Honek programak bere helburu nagusia lortzea bermatu du: laneratzearena. Azkeneko urte hauetan, krisia dela eta, laneratzeak behera egin badu ere, nabarmentzekoa da prestakuntza aldiak bukatu direnean kontratazioetan % 85erainoko emaitzak izan direla.

Ikasleak laneratzeaz gainera, programaren helburu bezala azpimarratu beharra dago gazteak hezkuntza sistemara itzularaztea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Titulua (DBH) eskuratzearen bitartez. Ikasle-multzo osoaren % 18ak lortzen du titulua eskuratu ahal izateko frogak gainditzea.

Gaur egun, 12 irakaslek dute beren gain ikastetxean matrikulatutako 85 ikasle neska eta mutilak prestatu eta hezteko ardura. Eskaintzen diren espezialitateak hurrengoak dira: zur-arotzeria, arotzeria metalikoa, elektrizitatea, iturgintza, lorezaintza, ostalaritza eta pintura. "Emaitzak oso positiboak izaten jarraitu dira. Horretarako, ezinbestekoa da talde profesional aditu eta sendo bat izatea, eta baita lan ona bermatzen duten ekipamendu eta instalazioak ere", azpimarratu du Zarrabeitiak.

EGOITZA DURANGON ETA FINANTZIAZIOA

25 urteko eboluzioko prozesu horretan, 2001. urtean kokalekua aldatzea gertaera gogoangarria izan zen egiaz. Abian jarri zenetik momentu horretara arte, ikastetxea Elorrioko Herri Eskolen ondoan egon zen. Dena den, leku premiak zirela eta, Durangoko Udaletxearekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako Sailarekin batera egoitza berrira aldatzea erabaki zen. Horretarako, Amankomunazgoak inbertsio handiei egin zien aurre Intxaurrendoko Eskola zaharrak hobetu eta egokitu ahal izateko, eta horrek eskainitako prestakuntzaren kalitatea nabarmen hobetzera lagundu zuen.

Beste aldetik, nahiz eta hasieran ikastetxea finantzatzeko dirua hein handi batean Europako Gizarte Funtsetatik iristea, gaur egun Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak eta Amankomunazgoa osatzen duten udalerrien diru-ekarpenak dira ikastetxeari eusten dioten oinarriak.